

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Kraso suhiltzaile (eta piztaile)

ERROMA, K.A. I. MENDEA. Marko Lizinio Krasok Erromako lehen suhiltzaile zerbitzua antolatu zuen. Dokumentatuta dagoen historiako lehen suhiltzaile zerbitzua, hain zuzen. Kraso aristokrata, militar eta politikari ezaguna eta Erromako gizonik aberatsenetakoa zen, eta, hiriko boterea eskuratzearren, Julio Zesarrekin eta Kneo Pompeio Magno-ekin batera Lehen Triumviratua osatu zuen.

Krasok suhiltzaile zerbitzua erromatarren ongizateak kezkatuta antolatu zuela uste duena oker dago, ordea. Sua itzaltzea negozio biribila bihurtu zuen. Su hartutako eraikinen edo lur eremuen jabeek baldintza bat jartzen zien, bere agindutara zeuden suhiltzaileak lanean hasi baino lehen: jabeagoa Krasori oso merke salduko zioten, sua itzaltzea nahi bazuten. Hala, jabeek etxea edo lurra sutan galtzea ala Krasok eskaintzen zien miseria hartzea aukeratu behar zuten eta gehienek suhiltzaile buruaren zikoizkeriari men egitea beste erremediorik ez zuten.

Zerbitzua pribatua zen, baina Krasok jarduera horretan aritzeko lizentzia eskusiban zeukan. Eta erromatar estatuak ederki ordaintzen zuten haren zerbitzuak kontratatzeko. Baina estatuaren ordainsaria eta jabeek egiten zien xantaia nahikoa ez, eta negozioa sendotzea erabaki zuen. Suhiltzaileek beti lana izango zutela ziurtatzeko suteak eragiten hasi zen. Horrenbestez, lehenengo suhiltzaile zerbitzua sortu ez ezik, lehen supiztaile brigadak ere antolatu zituen Marko Lizinio Krasok.



WWW.WIKIMEDIA.ORG

Marko Lizinio Krasok (K.a. 115-53) historiako lehen suhiltzaile zerbitzu antolatua sortu zuen, Erromako hiritarren hobe beharrez baino, bere ondasunak handitzeko. Argazkian, Krasoren burua Parisiko Louvre museoan.

Zuhurkeriak ez zion arazo handirik ekarri politikariari; alderantziz, konponbide ere izan zuen behin. Birjina vestale batekin sexu harremanak izateagatik auzipetu zuten. Krimen izugarria zen hura erromatar gizartean, baina bere argudioari esker zigorra saihestea lortu zuen Krasok. Auzitegiko epaileek halako bekatua zergatik egin ote zuen galdetu ziotenean, Marko Liziniok erantzun zuen vestalea familia aberats bateko oinordekoa zela eta ondasunak kentzeko oheratu zela harekin. Epaileek, ezinbestean, sinistu egin zioten.

Arrastoak

Errepide maparik zaharrena 11.000 euroren truke

JOHN OGILBY kartografoak Europako lehen errepide mapa nazionala argitaratu zuen 1675ean. Mapa liburuak 100 orrialde bikoitz ditu eta Ingalaterrako nahiz Galeseko errepide eta bidegurutze nagusiak biltzen ditu. Ogilbyk 42.500 kilometro egin zituen lana prestatzeko, baina azkenean 12.000 besterik ez zituen jaso mapa bilduman. *Britannia, Volume the First* izenburuko obra honek beste berrikuntza bat ere ekarri zion Ingalaterrako kartografiari: lehenengoz eskala uniformeak erabili zen, hazbete bat miliako. Orain Cambridgeko Chelfins etxeak mapa bilduma enkantean saldu du 11.000 euroren truke, kopuru altua munduan oraindik ere liburuaren beste 100 bat ale daudela kontuan hartuta.

WWW.WORDPRESS.COM

